

4 AISIALDI ANTOLATUAREN ETORKIZUNAZ

4.1. ONDORIOAK ETA DATORRENAREN IRUDIKAPENA

Haur eta gaztetxoaren aisia etengabeko garapenean eta hazkunderan dagoen arloa da. Ikastetxeetatik, erakunde publikoetatik, gizarte ekimenetik eta enpresa mundutik abiatu da, dagoeneko, datozen urteetan ugarituko den aisialdirako eskaintza anitza eta profesionala. Izan ere, aisialdirako eskaintzaren dibertsifikatzea eta profesionalizazioa dira azkeneko urtetan nabarmendu diren joera nagusiak. Horrela, aisiaren jarduera, kontsumorako jarduera bezala diseinatzeko eta eskaintzeko joera berri bat sendotu da.

Eskaeraren aldetik, haur eta gaztetxoaren denbora libre, gaur egun, kirolerako eta formazio akademikoa osatzeko aprobeztatzen den denbora antolatua eta egituratua bihurtu zaigu. Haurren denbora libre inoiz baino okupatuago eta lotuago dago, "ekintzen preso" dago denbora libre. Honek, neurri batean behintzat, ahuldu egin ditu aisiak dauzkan giza dimentsiorik berezkoenak, hots, gozamena eta subjektibitatearen adierazpen libre.

Hortaz, aisialdirako eskaintzaren aldetik zein eskaeraren aldetik indarrean dauden joera hauek arloaren irudikapen konplexuago bat irudikatzen dute. Aisialdi hezitzailearentzat, hau da, gozamena eta pertsonaren garapen libre modu esplizituan uztartzen dituen aisiarentzat, aisiaren eszenatoki berriak zenbait mehatxu edo erronka agertzen ditu, baita aukera berriak ere. Azter ditzagun, banan-banan, erronka eta aukera horietariko batzuk:

AISIALDI HEZITZAILEAREN AUKERAK ETA MEHATXUAK

MEHATXUAK	AUKERAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. AISIAREN DIBERTSIFIKAZIOAN TOKI PROPIORIK EZ HARTZEA. 2. ORAIN ARTEKO FUNTZIONAMENDU EREDUAREN INERTZIA (EGOKITZEKO MALGUTASUNIK EZ IZATEA) 3. BEGIRALEEN BORONDATEZKO KONPROMEZUAREN BEHERAKADA 4. HEZIKETA MUNDUKO BESTE ERAKUNDEEKIN HARTU EMANIK EZ IZATEA 	<ol style="list-style-type: none"> 1. AISI ESPARRU BERRIETAN HELBURU HEZITZAILEAK TXERTATZEA 2. BALOREEN HEZKUNTZA ETA GAZTETXOAREN GARAPEN PERTSONALAREN INGURUAN DAGOEN HEZKA ETA ESKAERA SOZIALARI ERANTZUNA EMATEA 3. LANKIDETZARAKO HELBURUAK ETA LAN ESPARRUAK DEFINITZEA HEZIKETA MUNDUKO BESTE ERAKUNDEEKIN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIN

Aisialdi hezitzailearen eskaintzak eskaera potentzial handia du. Haur eta gaztetxoaren denbora libreka kezka bihurtu da familietan, batetik, alkohola eta beste drogen kontsumoa saihestezina dirudien errealitatea bihurtu delako, bestetik, gaztetxoek aukera gutxi dutelako beraien aisialdian tabernetatik kanpo. Horrekin batera, kezkarria bihurtu da ere egungo gizartearen kontsumismoa, materialismoa eta norberekeria. Guzti horren aurrean, hitzetik hortzera daude eta premiazko zeregin bezala aipatzen dira hezkuntzaren arloan, gaztetxoaren autonomia eta oreka pertsonala lantzea, balore etikoei erreparatzea, ardura eta konpromiso kolektiboa indartzea eta sormena zein autoantolaketa bultzatzea. Hain zuzen ere, aisialdi hezitzailean gehien landu eta azpimarratu diren giza dimentsioak.

Aspalditik, pertsona arduratsuak, orekatuak eta eragileak formatzea aisialdiko taldeen helburu esplizituak izan dira. Horra hor paradoxa, helburu horiek inoiz baino gaurkotasan handiagoa daukatenean ahul aurkitzen dugu aisialdi hezitzailearen arloa.

Ikastetxeak eta udalak gero eta aisialdirako eskaintza zabalagoa garatzen ari dira, aisialdiko talde hezitzaileek eskaintza publiko horretan partehartzeko erronka eta beharra daukate; erronka, beraien esperientzia eta filosofia beharrezkoak direlako aisialdirako eskaintza publiko horiek jardueren kontsumo hutsean gera ez daitezten. Eta, beharra, guraso eta haurren erreferentziako erakundeak ikastetxea eta udala (kultur etxea, ludoteka, gazte lokalak,...) direlako; eliza gero eta erreferentzi ahulagoa izanik. Gurasoak eta haurrak gero eta urrutiago daude Elizarengandik, aldiz, dinamismoa eta partaidetza ikastetxe eta udalaren ekipamenduen inguruan aktibatzen da. Zentzu horretan, aisialdiko talde hezitzaileentzat dagoen mehatxu nagusienetarikoa bat ikastetxeekin eta udalekin hartu-emanik eta elkarlanik ez izatean datza.

Ikastetxeek eta erakunde publikoek sustatzen dituzten aisiaren jarduerak zerbitzu-enpresekin egindako subkontratazioen bidez kudeatzen badira, aisialdiko talde hezitzaileen eskaintzak, dituen berezko asmo hezitzaileekin, gero eta protagonismo eskasagoa izango du aisiaren eszenatokian. Zentzu horretan, aisialdi hezitzailea toki eta pisu gutxi izatearen arriskupean dago aisiaren panorama orokorrean.

Aisialdiko talde hezitzaileak, beraz, helburu hezitzaileak txertatu nahi badituzte ikastetxe eta erakunde publikoetatik egiten den aisialdirako eskaintzan, beharrezkoak izango diren moldaketa organizatiboak egiteko premia izango dute, lankidetzaren sendoa garatu ahal izateko erakunde horiekin. Era berean, ikastetxe eta erakunde publikoek, aisialdiko taldeek egin dezaketen ekarpen ballotsua baloratu beharko lukete eta lehentasunezkoa kontsideratu talde horiekin definitu beharreko elkarlana.

Orain arteko funtzionamenduaren inertzia. Erabateko boluntarismoak, azpiegitura eta baliabide apalak, malgutasunik gabeko egun eta ordu finkoak eta diru-laguntzen araberako finantzabideak, laburbildu dezakete aisialdiko talde hezitzaileek orain arte izan duten antolaketa-eredua. Horietako aspektu batzuk ez dira ondo ezkontzen errealitateak, beti bezain temati, erakusten dituen zenbait joerekin.

Lehenengo eta behin, aurreko ataletan azaldu den bezala, begiraleen konpromisoa ez da, gaur egun, beste garaietan izan den bezalakoa; oraingo boluntarioak formazio teoriko sendoagoa dauka baina bere konpromiso partehartzailea mugatuagoa eta ezegonkorragoa da (asteko egun eta ordutegi zehatzetan eta, batzuetan, bi edo hiru urtez). Ondorioz, aisialdiko taldeei zailago egiten zaie gutxienean egonkortasuna eta jarraikortasuna bermatzea. Bestaldetik, esperientzi luzea daukan jendea eta taldeari lidergo sendoa eskaini diezaiokiena, adinean gora joan ahal galduta egiten da talderako. Giza baliabideen antolaketan, beraz, badago zer egokitu eta zer moldatu erronka berriei aurre egiteko.

Oinarri sozialik gabeko ekimen ekonomikoek ez dirudite egokienak lan hezitzaileak behar duen gertutasuna, berotasuna eta jarraikortasuna bermatzeko. Zentzu horretan, jarrera militanteak ezinbesteko elementua jarraitu behar du izaten aisialdiko talde hezitzaileetan. Baina, jarrera militantea (daraman inplikazio pertsonalarekin, konpromiso sozialarekin eta boluntarismoarekin) landu behar da liberatu zein boluntarioen artean. Beste era batera esanda, azkeneko urtetan nabarmentzen ari denez, boluntario izateak ez du ziurtatzen jarrera militantea eta, alderantziz, liberatua izateak ez du esan nahi jarrera militanterik ez dagoenik. Horrexegatik, liberatu eta boluntarioen arteko dikotomiak ez du zergatik ekarri behar militante eta ez-militanteen arteko bereizketarik. Azken finean, liberatu eta boluntarioen arteko diferentzia ez da militantzia mailan egon behar, dedikazio mailan baizik. Aurreiritzi eta topiko sinplifikatzaile ugari dituen gai honetan, gakoa ez da soslai boluntario eta soslai liberatuaren arteko aurkakotasuna, jarrera militantea lantzea eta bi soslaien integrazioa lortzea baizik. Izan ere, helburu sozialak eta hezitzaileak betetzeak bien ekarpena beharko luke, modu koordinatuan eta orekatuan, asimetriarik edo lan-dinamika bereizturik sortu gabe.

Bestaldetik, aisialdiko talde guztiak ez daude kide bat edo beste liberatzeko egoeran, taldearen sendotasunaren aldetik zenbait aurrerapauso eman behar baitira, besteak beste: talde bezala ondo egituratua egotea, ekipamendu finkoa izatea, bere ingurunean ondo txertatua egotea eta beste erakundeekin lankidetzan aritzeko gaitasuna edukitzea. Norbait liberatzea jauzi kualitatibo garrantzitsua da, zuhurtziaz eman beharreko urratsa, plangintza eta ebaluaketa errealista eskatzen duena. Baina, zalantzarik gabe, erronka polita da interes soziala duten lanetan jarrera militantea duten pertsonak soldatapeko bihurtzea, dedikazio handiago bat eta ekarpen aberatsago bat egin dezaten.

Ekipamendu eta baliabideei dagokienez, ezinbestekoak dirudite, batetik, hurren ordutegietara molda daitekeen ekipamendu edo lokal finko eta erakargarriak eta, bestetik, gaurko haur eta gaztetxoek interesari erantzuna eman diezaioketeen baliabide hezitzaile egokiak. Argi denez, arlo honetan dauden erronkak diru-laguntzak baino haruntzago doan finantzabidea behar dituzte; seguru asko, hitzarmen bidez, tokian tokiko erakunde publikoekin definitu beharreko aisialdirako zerbitzu hezitzaile baten eskaintza bermatzea.


Horiek horrela, azter ditzagun jarraian, nolako bilakaera irudikatzen dugun asiaren arloan etorkizun hurbilean.

Azterketa honetan detektatu ditugun egungo joeren arabera, aisialdiko eredu ezberdinen arteko hurbilketa eta elkarregina da datozen urtetan aurreikus daitekeen egoera. Izan ere, oraindik gutxi badira ere, dagoeneko badaude esperientziak zeinetan aisialdirako eskaintza hezitzailearen filosofia (proiektu hezitzaile sendo batekin) uztartzen da jarduera ludikoak antolatzen dituen zerbitzu baten baitan. Aisialdiko eredu horrek hurbiltzen ditu proiektu hezitzailearen eredu eta eskaintza ludikoaren ereduak; emaitza da, beraz, asmo hezitzailea duen eskaintza ludiko bat.

Bestaldetik ere, zerbitzu-enpresek, euren zerbitzuak hobeto saltzeari begira, helburu hezitzaileak definitzeko asmoa agertzen dute beraien eskaintzan.

AIISI-EREDU EZBERDINEN ARTEKO HURBILKETA ETA ELKARRERAGINA

ESKAINZAREN NOLAKOTASUNA



HURBILKETA, ELKARRERAGINA

Eredu ezberdinen arteko hurbilketa eta elkarreragina ez dugu sumatu soilik eskaintzaren nolakotasunean, baita beste bi aspektutan ere: aisiadirako eskaintzaren sustapenean eta aisialdiko taldeen eredu organizatiboan.

Aisiadirako eskaintzaren sustapen eta kudeaketari dagokienez, gero eta nabarmenagoa da aisiaren arloan dauden agente ezberdinen arteko hurbilpena. Elkarlanerako zubiak sortuz, subkontratazioa eta hitzarmengintza dira ikastetxeek, guraso elkarteek eta udalek zerbitzu-enpresekin eta gizarte zibileko aisialdiko taldeekin dituzten loturak. Lankidetzaren modu horiek dirudite, etorkizunean ere, aisiaren sustapenean eta kudeaketan nagusituko direnak. Horrexegatik, lankidetzaren esparru horietatik kanpo geldituko diren agenteek zailtasunak izango dituzte euren lana garatzeko. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da ikastetxeek (zentroak beraiek edo zentro bakoitzeko guraso elkarteek) daukaten zentralitatea haur eta gaztetxoentzako aisia sustatzeko eta dinamizatzeko orduan. Udalerri mailan, ikastetxeek eta udalek dirudite, beraz, lankidetzaren erdigunean dauden eta egongo diren erakundeak.


Aisialdiko taldeen eredu organizatiboari dagokionez, eredu organizatibo ezberdinen arteko hurbilketa edo nahasketa ere antzematen da. Gaur egungo begiraleen soslaiak borondatezko konpromiso soziala formazio espezializatuago batekin biltzen ditu. Zentzu horretan, begirale-lanak praktikak egiteko aukera bezala eta diru-sarrerara apal bat edukitzeko aukera bezala ere ulertzen dute. Era berean, liberatuen lanak ere soslai bikoitza du: lanbide bezala eta konpromiso edo militantzia bezala (ordaintzen dizkieten orduak baino gehiago lan egiten baitute). Aisialdiko talde berriei eskaini diogun tartean aipatu dugun bezala, lan banaketari dagokionez, begirale boluntarioek jardueren diseinu eta burutzapenaren ardura hartu ohi dute eta, liberatuek, zeregin horietan partehartzeaz gain, taldearen koordinazioa, kudeaketa eta kanpo-harremanak (lankidetzaren, komunikazioa eta elkartrukea) eramaten dituzte.



PROFESIONALIZAZIOA VERSUS BOLUNTARIADOA: *"Batak ez du bestea kentzen. Gainera soslai bakar batekin nekez ailegatzen da, gaur helburu hezitzaileak betetzera".*

Aisialdi hezitzailearen erronka berrientzat bi borondate eta indar horien beharra sumatzen da eta, egun, biak osagarriak egiteko ahaleginetan dihardute zenbait taldek. Oreka eta uztarketa zailak izanda ere, aisiaren esparru ezberdinetan helburu hezitzaileak txertatzeak bi soslaien elkarlana eskatzen du ezinbestean. Izan ere, guraso eta haurren aldetik lehen baino exijentzia maila altuagoa dago; horrela, haurrekin egoteaz gain eta haurren ludikotasuna nola landu jakiteaz gain, geure gizartearen dinamikak bultzatuta, moldagarritasuna (ordutegien aldetik), esku-ragarritasuna (ekipamenduen aldetik), erresponzabilitatea eta lan iraunkorra (eta ez gora-beheratsua) eskatzen dute.

Etorkizuneko joera horiek aztertu ahala, aisialdi hezitzailea suspertzeko nola-ko lehentasunak eta lan-ildoak bultzatu beharko lirakekeen ere azaldu zaizkigu. Ondorengo hiru hauek dirudite premia-koenak: lankidetzak, egokitzeapena eta komunikazioa.



Lankidetzari dagokionez, aisialdi hezitzailea, hau da, gozamina eta pertsonaren garapen libre eta integrala helburu duen aisia, suspertu nahi bada ezinbestekoa dirudi erakunde publikoek eta gizarte zibileko aisialdiko taldeek elkarlanerako lan-ildo bateratuak definitzea. Hurrengo atalean luzatuko ditugun proposamenak lankidetzak hori bultzatzera zuzenduriko proposamenak izango dira.

Egokitzeapenari dagokionez, aisialdi hezitzailearen eskaintza egungo familiarenganako (haur, gaztetxo zein gurasoenganako) orientazio gehiago hartu behar du. Horretarako, birplanteatu beharreko aspekturik garrantzitsuenak ondorengo hauek lirakeke: espazioa (lokal eta ekipamendu ondo hornituak eta finkoak), denbora (haur eta gaztetxoaren ordutegietara moldaturikoak), eta aisialdiko taldeen eredu-organizatiboa (aste osoko aisialdirako zerbitzua eskaintzeko modukoa).

Azkenik, komunikazioaren arloan, lan-ildo bikoitza antzematen dugu; batetik, aisialdi hezitzailearen bereizgarritasunak gizarteratzea merezi duen aitortpen soziala beregana dezan eta, haur zein gaztetxoaren aisiaren inguruan dauden kezka sozialei (balore etikoak, alkohola eta beste drogen kontsumoa, materialismo eta nobreakeria...), ematen dien erantzuna kontuan hartua izan dadin. Bestaldek, aisialdiaren arloaren baitako agenteen artean komunikazio-bideak sendotzea, dauden eredu eta esperientzia berritzaileak ezagutu daitezten.